




Migel
Arozamena
Larralde

1930-1976

BIDeGILEAK

Egilea:
Joxemari Iriondo



MIGEL ARZAMENA LARRALDE

(1930-1976)

Gipuzkoako nafarra

Nafarroako bertsolaritzaren ordezkari-tza ongi bete zuen Migel Arozamenak aldi luze batean, Bautista Madariaga, Felix Iriarte, Klemente Ezkurdia eta beste askorekin batean. Edota Arozamena bezalaxe mutikotan Gipuzkoara etorri zen Manuel Lasarterekin batean, Euskal Herri guztiko jaialdi, lehiaketa, txapelketa eta zernahi norgehiagokatan esku hartuz.

Zazpi urte zituen ezkerro Gipuzkoan (Astigarragan) bizi zelarik ere, bere nafartasunari bihotzez eta gogoz eutsi nahi izan zion Migelek beti. Eta kantatzen zuen tokian kantatzen zuela, jatorri hori

harrotasunez aitortzen zuen nonahi. Ez zeukan saltzeko harexek bere Lesaka jaioterria! Zenbat aldiz entzun ote genion «Nafar anaien izenez nator; agur goxo bat gaur denoi» bezalako bertso-hasiera edo amaieraren bat!

Migel Arozamena nolabait definitu behar balitz, eskola zaharreko bertsolaria zela esan beharko dugu lehenengo, bere garaiko bertso-giroaren semea eta garaikidea zela goitik beheraino. Izan ere, hark ez zuen izan bertso-eskolan ikasi eta trebatzeko aukerarik, ez bertsolaritzaren teoriak erakutsiko zizkion maisurik, berak



Lazkao Txiki, Uztapide, Arozamena eta Mugartegi, Donostian, 1965ean

plazaz plaza zeraman bizimodua eta bertso-lagunekin arian-arian ikasten zuena izan ezik. Haren aurreko eta garaiko guztiek izan zituzten bitarteko berdintsuak izan zituen, ez gehiago eta ez gutxiago.

Hala ere, ez zen hori eskolarik txarrena izango ikasi nahi zuenarentzat. Hitz-jario eta etorri egokiko bertsolaria zen, bere bertso-lagunak momentuan esan zeza-keenari adi egotea maite zuena, hark esandakoari zuzenean erantzun ahal izateko, bi-bitarako bertsolaritzaren dia-

lektikak eskatzen duenez. Kalakari trebea izaki, arrazoietan zein-nola atzemango adi eta erne egongo zen, lehengo bertsolari zahar gehienetan usadioko zenez.

Bestalde, bizitzako penak bere baitan ondo gorde eta jendearen aurrean alai eta irribarretsu azaltzea gustatzen zitzaion, bereziki. Lagunen lagun leiala zen eta lagun artekoa, hura ezagutu zutenek ondo gogoan izango dutenez. Irribarrea ezpainetan eta begitarte gozoa beti.

Herrian edo auzoan eskuratutako bertso zaharrak goitik behera irakurri, buruz ikasi eta kantatzea ere maite zuen gogotik. Eta euskal kantu eta ipuinak bere seme-alabei kontatzen asko gozatzen zuen etxean pasatzen zituen orduetan. Txisteak kontatzen, berriz, maixua zen, baina aurrean zer adinetako jendea zeukan ongi neurtuta hasiko zen, ahal zuenean behintzat, entzulearenganako errespetua eta itzala erakutsiz.

Ez baita batere harrigarri, denetarik izango zuen hark ere bere bizitzan zehar; baina etsai baino lagun leial gehiago zuela esango genuke.

LESAKAN JAIOA

Lesakako Bitiri kaleko Mikelenea etxean bizi ziren haien gurasoak eta hantxe jaio zen Migel ere. Antonio Zavalak 1976ko udaberrian argitara eman zuen Arozamenaren *Nere Aldia* (Auspoa 127) liburuan esaten duenez, 1930eko abuztuaren 31n jaio zen, bere amak esan ohi zuenez. Hala ere, herriko agiriak dioena sinestekotan, abuztuaren 30ean jaio zela esan beharko. Baina ez da oker handia nolana dela ere; horixe baino handiagorik ikusiko duzu edonoren jaiotagiriak bildu eta aztertzen hasten bazara.



Migel haurra

Familia handitzen eta beharrak geroz gehiagotzen zihoazela eta Mikelenea etxetik Bordaberri etxera aldatu ziren haien guraso Luis Arozamena eta Maria Larralde, halabeharrez, Bedioko zubia pasatu eta herriko sarreran, Salbatoreko ermitatik aurrexeago, eskuinera. Eta hantxe bizi izan ziren harik eta Astigarragara joan ziren arte bizitzera, lanbideak halaxe eskatzen-eta Luis Arozamenari. Eneterreagaren enpresako enplegatua baitzen eta Astigarragan eman zioten lana, Donostiatik Tolosara zihoan argindar-linea hobeki zaindu zezan.

Halaxe bada, Nafarroako herri polita utzi eta Astigarragara aldatu zen Arozamena-Larralde familia. Migelek zazpi urte zituen, hain justu, Oialumeko Aran-eder etxera bizitzera joan zirenean.

Zortzi senide izan ziren guztira, baina sei bakarrik joan ziren Astigarragara. Horietan zaharrena Migel bera zen; eta haren ondoren, Manuel, Baleriana, Benita, Joxe eta Tomasa. Beste bi senide hilak ziren ordurako, bata jaiotzean eta bestea (Kontxita) umetan, hain zuzen.



Migel, lehenengo jaunartze egunean

Haurtzaroko kontuak erraz ahazten omen direla entzun izan dugu. Migel ez zen ordea bere haurtzaroaz eta jaioterriaz inoiz ahaztu gero ere. Ez dago haren bildumako bertsoak irakurri besterik, bere sailtako batean argi eta garbi honela aitortzen baitu:

Zazpi urtekin aldegin nuan
ezagun danak utzita,
baiña ni sortu nintzan erriaz
beñere ez nago antzita.
Gure euskera ordun zegoan
guztia lorez jantzita,
baiña negarra egin leike gaur
ainbat erdara ikusita.

Erruz kezkatzen zuen bere sorterriaren euskaltzaletasunak eta martxak, argi dagoenez. Herria handitzeak eta bere sorterrian euskara galtzeak kezkatzen zuen, bereziki. Eta berdintsu gertatu zitzaion Astigarragan eta Hernani aldean ere, askotan aipatu ohi zuenez, gaur egunean ez baitira hark ezagutu zituen herri txiki, baketsu eta euskaldun peto-petoak. Herrien ezinbesteko handitzeak eta aurreratzeak horixe ekartzen du sarritan, erremediorik gabe. Min ematen zion Migeli, baina ez zegoen hor beste konponbiderik, ez horixe!

HERRIKO ESKOLAN

Garai hartan sei-zazpi urterekin hasi ohi ziren neska-mutikoak eskolara joaten, gehienetan behintzat. Arozamenatarrak ere halaxe hasi ziren.

Migelek Lesakan egin zituen lehenengo eskola-urteak, baina Astigarragan hasi zen egiaz eta benetan eskolan, beste anaia-arrebak bezalaxe. Eta hamahiru-hamalau urtera arte hantxe ibili zen. «Ez genuen ezer asko ikasi eta egin, baina hangoarekin defenditu izan gera behintzat bizitzan», esan ohi zuen.

Bere anaia Manuelek gogoratzen duenez, Ergobian bazen Ikastola izeneko herri-eskola koskor bat. Eta Goiatarrek eskatuta-edo, Donostiako Alde Zaharretik joaten zitzaien andereño batekin ibili ziren aldi batean, beti edo gehienez euskaraz



Migel, gaztetan

hitz eginez, dantzatzen eta euskaraz kantatzen ikasiz. Baina haien aitaren iritziz, euskal kantu eta dantzak besterik ez omen zutela ikasten umeek han eta haurrak herriko beste eskola batera eramateko erabakia hartu zuten etxean, ea han zerbait gehiago ikasten zuten, euskal kantu eta dantzak etxean edo herrian noiznahi ikasiko zituztela-eta.

Don Saturnino Irisarri nafarra (Erriberakoa zela uste du Manuelek) zen garai hartan mutikoen eskolako maisu; eta berarekin hitz egin zuen ama Mariak, mutikoak eskola batetik bestera aldatu behar zituztela-eta.

Ez zien oztopo eta zailtasun handirik jarri don Saturninok, hamabost izan edo hogeik ikasle izan berdintsu zitzaiola-eta. Mutikoak argi xamarrek ziruditela bai, eta bidaltzeko eskolara agudo esan omen zion, eta han ondo ikasiko zutela agindu. Baina, hori bai, bi gauza hauek argi eta garbi edukitzeko eskatu zion maisu zorrotzak amari: a) Ez zegoela hitzik egiterik euskaraz eskola hartan, eta b) inoiz ez zutela idatziko esku ezkerrez mutikoek. Legeak agintzen zuen bezala esku eskubiz idatzi beharko zutela, alegia.

Garai hartan Astigarragako giroa, Lesakakoaren antzeratsu, euskaldun peto-pettoa zen. Herri txikia izaki, herritar guztiek elkar ezagutzen zuten han, eta kalean nahiz baserrian ez zen entzuten euskara baizik, herri osoak euskaraz hitz egiten zuen soilik, beste etorkinik ez baitzen artean.

Ez zen batere harritzekoa Arozamena aitaren kezka eta larria, bere haurrek eskolan euskaraz kantatzen eta dantzatzen bakarrik ikasten zutela ikusita: «Guk ikasi ez genuena ikasi dezatela behintzat gure umeeek».

LANERA HAMAHIRU URTEREKIN

Hamahiru-hamalau urte bete ordukoxe hasi zen Migel ere, inguruko beste gazte gehienak bezala. Lantoki egoki batean sartzeko zoria izan zuen gainera. Lehenengo urteak Hernanin egin zituen; eta gero, bere aitak lagunduta, Iberdueron sartu zen Donostiako Getaria kalean, gazte hasi berri bati zegozkion lanak eginez lehenengo, eta auto baten gidaritzza eta beste

lanak txandaturuz gero, batez ere soldaduska ondoren. Ez omen zen haserre huraxe bere lanari esker lehenengo txanponak irabazten hasi zenean, eskuartean sosak izatea gauza ona baitzen orduan ere gaztearentzat. Inoiz ez omen zuen ahaztu «lehenengo soldata koskor» hura.

Hantxe egin zituen Larache (Afrika) aldeko lurralde erreterara soldadu joan zen arteko lan urteak, harik eta 1976ko abenduaren 23ko goiz ikaragarri hartan eguenero bezalaxe goizean goiz lanera joan eta Azpeitian hantxe bertan hil zen arte, ondoezak emanda.



Larachen (Afrika)
soldadu, 1952an



Eskola zaharreko bertsolaria

Migel, 1951ko txapelketan, Donostian

TXIKITANDIK BERTSOZALE


Txikitandik izan zuen bertsotarako zaletasun bizia Migelek, nahiz eta haien aitari ez omen zitzaion asko gustatzen bere semeak plazaz plaza bertsolari arloteen moduan ikustea. Izan ere, arlote eta mozkor fama txarra zuen bertsolariak garai batean, eta Luisek horixe baino etorkizun hobea nahi zuen bere semeentzat.

Bere kasa, edota anaia Manolorekin te-
man aritzen zen bertsotan mutikoa zela.
Eta behin koskortu zenean, berriz, igande
eta jaietan lagunartean saiatzen zen, ho-
rretarako aukerarik zuenero. Astigarraga
aldean beti izaten zuen kontrarioen bat

bertsotan egiteko, eta ez zuen huts egiten
halako aukerarik. Bihotz-bihotzean zera-
man bertsoaren grina eta maitasuna.

Osaba bat edo bi ere ba omen zituzten
bertsotan ondo samar moldatzen zirenak,
1963ko azaroaren 19ko *El Pensamiento
Navarro* egunkariko kazetariari aitortu
zionez Nafarroako bertsolarien txapela
jantzi ostean: «Bai, bi osaba bertsolarien-
gandik datorkit bertsolaritza...». Bistan
da ez zirela iritsi Arozamena anaiak izan
diren bezain ezagun izatera Euskal He-
rriko plazetan eta antzokietan.

Bertsotarako giro eta zaletasun handia
zen Astigarraga eta ingurumari horietan
Arozamenaren gazte denboran. Hala ere,



Eskuidatziak

lagunarteko ika-mikatan izan ezik apenas beste aukerarik izaten zuten beren abileziak erakusteko, bertso saio formalak antolatu behar zirenean izen gehixeagoren jabe ziren bertsolariak ekartzen baitzituzten herriko jaietan-eta. Bertsolari gazte edo hasi berriarentzat ez zegoen tokirik orduan ere.

Bertso-giro ederra ezagutu zuen Migelek Astigarragan bere gazte denboran, hala aitortu ohi zuen behintzat. Bertso saioak sarritan izaten ziren han, herriko plazan ez

bazen inguruko ostatu edo sagardotegiren batean; eta hantxe saiatzen ziren herriko bertsolariak ahal zuenak ahal zuena eginenez, nahiz eta ez zuten goi mailakoak izateko motibo handirik.

Lehenengo aldiz kantatu, berriz, bere etxetik hurbil, Ergobian kantatu zuen Arozamenak, hango zaindari jaiak zirela-eta. Garai hartako entzuterik handieneko Manuel Olaizola *Uztapide* eta Iñaki Eizmendi *Basarri* ziren bertsoetan nonbait herriko jaietan, eta haien saioa entzuteko irrikitan joan omen zen harainoxe.

Hala behintzat, eguerdiko saioa egin bide zuten bi bertsolari ezagun horiek, eta bai gozatu ederra hartu ere Arozamenak. Saioaren ostean, berriz, herriko sagardotegi ezagun batera joan ziren, sagardo-trago batzuk egin eta festetako bertso jaialdia osatzeko, agian. Migel gaztea ere haien atzetik joan zen, zer ikusiko eta, batez ere, zer entzungo. Bere idoloekin gozatzeko abagune ezin hobea etorri zitzaion, eta bete-betean bizi nahi zuen momentu hura. Sagardo-egarria ez baina bertso-egarri asezin bat omen zuen bere barrenean Migelek egun hartan; eta nola

Bertsolariok danok degu beste profesio-
ren bat bizitzan, ez baitago bertsolaritzatik
bakarrik bizitzerik. Ala ere, gauzak asko
aldatu dira. Leenago erri batera bertsotara
joaten zinen eta jaiak bukatu arteko lana
izaten zenuen. Oraingo bertsolariok ezin
genezake ordea olakorik egin. Gizartea
bera ere aldatzen ari da, eta bertsolaria gi-
zarteak aldatzen eta mugitzen du beti.



Garai bateko bertsolari txapelketak eta
norgehiagokak ekarri zuten bertsolariei
gaiak emateko ohitura makurra. Baina
onartzen zuen hark bertso jaialdietan
gaiak eta neurriak ondo zetozkiela asko-
tan, baina gai-jartzaile eta gaiak emateko
moduaz kezka handia zuela bistan da,
noski:

Nere ustez gai-jartzaileek bertsolarien pro-
zesu berdiña eraman bearke lukete. Gai-
jartzaile izateko, ofizioa oso ondo ezagu-
tzea nai ta naiezkoa da. Lan ori urtean
bein bakarrik egitea ez da naikoa. Asko
ibili bear da. Eta gai-jartzaileak bertsolari-
-sena bear du, eta orrez gainera, gaiak jarri
baiño leen bertsolaria ondo ezagutu.

Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Ipa-
rraldeko bertso jaialdietan arrunt ezaguna
zen Arozamena bertsolari nafarra. Bizi-
tzan beste lanbide eta zeregin bat zuelarik
ere, herri askotako bertso jaialdietara hel-
tzen zen urtearen buruan.

Bertsolari lehiaketa eta txapelketei da-
gokienez, berriz, 1951ko ekainaren 3an
Donostiako *La Perla del Océano* aretoan
egin zuen bere lehenengo agerraldi ofizia-
la, Astigarragako Berasarte *Elio*, Jose Luis

Lekuona *Lexoti*, Otaño, Intziarte eta abarrekin batean.

Lexoti oiartzuarra izan zen lehenengo, Astigarragako Berasarte *Elio* bigarren, eta hirugarren saria Migeli eman zioten bere lehenengo norgehiagoka hartan. Eta horrez gainera, hurrengo uztailaren 8an Tolosako Beotibar pilotalekuan egin zen azken saio nagusira joateko eskubidea ere bai, haien artean onena zein zen erabakitzeko. Txapelketa hartako bertsolari gazteenaren saria eman zioten Tolosan.

NAFARROAKO TXAPELDUN

Nafarroako Bertsolarien IV. Txapelketa Beran jokatu zen berriro, 1962ko irailaren 23an, aurrez kanporaketak Erratzun (1962.07.01) eta Goizuetan (1962.08.29) egin ostean. Zortzi bertsolari ziren jokoan, hala nola, Migel Arozamena (Lesaka), Migel Zabaleta (Areso), Andres Narbarte (Goizueta), Bautista Madariaga (Arantza), Martin Oreja (Errazkin), Simun Ibarra *Zubikoa* (Sunbilla-Banka), Juan Perurena (Goizueta-Arizkun) eta Manuel Uhitzi (Arano), hain xuxen. Eta final handi har-



Donostian, 1965eko txapelketan

tako bi bertso saio luze eta estuen ostean, Migel Arozamena izan zen Nafarroako Bertsolarien txapeldun, eta Zabaleta bigarren edo txapeldunorde.

Beste sari eder bat ere izan zuten txapeldunak eta bigarrenak. Urte hartako abenduaren 30ean Donostiako Astoria antzokian egin zen Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusirako hautatu baitzituzten biak ala biak, eta hori sari handia zen, noski.



Nafarroako txapelketan Iruñeko Gayarren, 1966an

Nafarroako Bertsolarien V. Txapelketako saio nagusia, final handia alegia, Iruñeko Gayarre aretora eramatea erabaki zuten, 1963ko azaroaren 17an, Areson (1963.05.19) egindako kanporaketatik lau bertsolari onenak eta Arizkunen (1963.06.23) egindakotik bost lehenengoak hartuta: Angel Aldaz (Yaben), Migel eta Manolo Arozamena anaiak (Lesaka-Astigarraga), Andres Narbarte *Xalto* (Goizueta), Martin Oreja (Errazkin), Manuel Uhitzi (Arano), Ximon Ibarra *Zubikoa* (Sunbilla-Banka), Bautista Madariaga (Arantza) eta Ramon Mihura (Lekaroz).

Sekulako bertso-giroa egin zen Iruñeko saio hartarako; eta ehunka bertsozale bildu ziren, nola Nafarroatik hala inguruko beste lurraldeetatik ere. Eta halako bertsozale pila handiarekin aretoa gainezka ikusita harritzeko ez denez, estu samar heldu ziren hautatutako bertsolariak.

Lanaldi luzea egin zuten bertsolariek Gayarre dotorean. Eta azkenean epaimahaiaren erabakia irakurri zuen aurkezleak, bertsozaleak dena begi dena belarri zirela: «Migel Arozamena, txapeldun».

Hala, Nafarroako bertsolarien bosgarren txapela ederra jantzi, saria jaso eta azken saioari zegozkion gainerako protokolo guztiak ondo burutu ostean, honako azken agur hauxe kantatu zuen Migel Arozame-nak, pozez gainezka, honela bukatu zuen azken bertsoa: «danon artian maite ditza-gun Fueruak eta Euskera».

Arrakasta berezia izan zuen Nafarroako bertsozaleen artean bosgarren txapelketa hark. Inoiz ez zen hala bete Gayarre areto handia behetik goraino. Eta inoiz ez zen hainbeste hitz egin Nafarroako bertsolari-iei buruz, ez halako girorik ezagutu ere.

Iruñeko prentsak ere gogotik aipatu eta txalotu zuen bertsolarien norgehiagoka hura, nahiz eta *fueruak* eta *euskera* aipatzea ausardiakeria zen askoren iritziz garai hartan. Hala ere, txapela buruan eta zai-netan odola irakiten izan txapeldunak, eta bost axola hari nork zer pentsa zezakeen. Pozaren pozez gainezka zegoen Migel, eta mingainera etorritakoa bota zuen, norma-la denez.

Saioa amaitu ostean Migelek kazetariari aitortu zionez, «bertsozalea zen goitik be-



Nafarroako bertsolarien txapeldun, 1966an

heraino» bera. Eta euskarazko bertsoak ez ezik gaztelerazko poesia ere gustura irakurtzen zuen, horretarako aukerarik zuenean. Neurtu eta errimatutako idazkerari mirespen berezia ziola aitortu zion kazetari erdaldunari.

Gipuzkoan ere aipatua izan zen Nafarroako txapelketa hura. Besteak beste,

Iñaki Eizmendi *Basarrik* lau bertso eder argitaratu zituen (*Zeruko Argia*, 1963.11.24) txapelketa hura zela-eta, haietako batean honelaxe zioelarik, labur beharrez:

Teatro eder zoragarrian
gure mintzaira gozoa,
ate guztiak ondo zabalduz
barruratu da bertsoa.
Derrior batek izan bear zun
zuetan aurrenekoa.
Etzaitzela batere estutu,
ori da gutxiñekoa.



M. Berasategi bertsozale handiarekin, Lesakan

1966ko azaroaren 13an hamaika t'erdietan hasita Gayarren egin zen Nafarroako Bertsolarien VI. Txapelketan, Arozamena eta Narbarte gelditu ziren azkenengo saiorako. Eta Migeli eman zioten txapela, eta Narbarteri bigarren saria. Gero, 1967ko ekainaren 11n Donostiako Anoeta pilotalekuan jokatu zen Euskal Herriko Txapelketa Nagusirako Migel Arozamena eta Bautista Madariaga hautatu zituzten Nafarroako ordezkariak bete zezaten.

Alabaina, gauzak zeuden bezala zeudelako, urte hartantxe utzi zion Euskaltzaindiak Nafarroako txapelketak antolatzeari, beste norbaitek zeregin hori bere gain hartu nahi bazuen ere. Eta Principe de Vianak eratu zuen euskal festa 1976ko irailaren 27an, kantari, kontalari, bertsolari eta abar. Lertxundi, Lurdes Iriondo, Laboa eta Leteren ondoan Xabador, Lasarte eta Arozamena aritu ziren bertsoan.

Hamahiru urte luzeko moztualdiaren ostean, «Paulo Igantzi saria» antolatzen hasi ziren Lesakan, 1979an, Nafarroako Bertsolarien txapelketa aro berri bati hasiera emanez.

BERTSOLARIEN TXAPELKETA NAGUSIA

Arestian aipatu dugun bezala, Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Lapurdin sarritan kantatu zuen, eta guztiz bertsolari ezaguna eta estimatua zen Migel Arozamena. Baina beti ere Nafarroako ordezkari izenez kantatu ohi zuen hark.

Besteak beste, 1968ko otsailaren 4an eta 11n Donostiako Anoeta pilotalekuan egin zen «100.000 pezetako sariketa» sonatu hartan ere Nafarroaren izenean parte hartu zuen. Baita Leitzan (1970.04.26), Bergaran (1970.05.03) eta Gernikan (1970.05.10) egin zen herriarteko sariketa hartan ere. Nola batean hala bestean ere Bautista Mada-riaga arantzarrarekin kantatu zuen, Nafarroako ordezkaritza halaxe osatuz.

Hala ere, aipatu sariketa horiez gainera, 1960an, 1962an, 1965ean eta 1967an egin ziren Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa nagusietan ere hantxe ikusi genuen «Gipuzkoako nafarra», serio eta emankor mikroaren aurrean, 1967ko ekainaren 11ko saioarekin Euskal Herriko eta Nafarroako txapelketak amaitu ziren arte.



Galarretan (Hernani), 1971ko apirilean



Lazkao Txikiren omenaldian, 1976.09.03an

Bertsozale askok gogoan izango duenez, arratsaldeko saioan Uztapiderekin txapela jokatzeko epaimahaiak Xalbadorren izena eman zuenean sekulako iskanbila sortu zen egun hartan, eta moztualdi luzea etorri zen jarraian.

BERTSO IDATZIAK

Bat-bateko bertsolariago zen Migel Arozamena idatzizkoa baino. Hala ere, baditu bertso idatziak, edo bertso paperak ere han-hemen sakabanatuta. 1976ko maiatzaren 23an bere sorterriak egin zion omenaldi eder hartako giroaz baliatuz, *Nere Aldia* liburuxka argitara eman zuen Antonio Zavala tolosarrak.

Auspoan argitara emandako bertso horiez gainera, *Principe de Viana*, *Umeen-deia*, *Eudeia*, *Goiz-Argi*, *Zeruko Argia* eta *Eguna* agerkarietan argitara emandako bat-bateko nahiz bertso idatzi gehiago ere baduela hark gogoratu nahi genuke, noiz edo noiz norbaitek denak bildu eta argitara eman nahi balitu ere.

Kalifornian bizi zen lagun Migel Baraibari askotan bidali zizkion bertso idatziak, bere sentimendurik gozoenak gogora ekarriz. Halaber, *Kinto bazkaria*, *Museko kontuak*, *Azkarate eta Atanori*, *Leitzeko osaba Migeli*, *Zikuñagako Amari* eta abar jarritako bertsoak ere baditu, eta argitaratuak daude. Andres Nabarte *Xalto* zenari jarriak sentimendu handikoak dira.



Itzikan gabe gelditu nintzan
orduntxe momentu baten;
lagunagatik sentitu nuna
ezta erreza esaten.
Geroztik eztakizu zuk, Andres,
nolako pena daukaten,
zu bezelako lagun jatorrik
ezpaita nunai izaten.



Guraso gozo eta atsegina

Irungo San Martzialetan, Margaritarekin, 1958an

EZKONTZA, LEITZAN

Oialumeko festa batean ezagutu zuen gero bere emazte izango zen Margarita Sagastibeltza Arregi, Donostian neskame zegoela; eta handik lau urtera ezkondu ziren, Leitzako San Migel elizan ezkontzako zeremonia eginez, elizkizuna emazte berriaren herrian egiteko ohitura zaharrari jarraituz. Eztei-bazkaria ere Leitzan bertan egin zuten.

Gipuzkoaren muga-mugan dauden Nafarroako bi herri ezagunetakoak ziren biak ere, arestian esan bezala: Bata, Lesakako semea; bestea, berriz, Leitzako alaba. Eta, halabeharrez, Gipuzkoan elkar ezagutu

eta sustraiak hementxe bota zituzten bizialdi guztirako.

Elkar ezagutu eta lau urtera, 1958ko maiatzaren 31n, ezkondu ziren, eta Astigarragako Oialumen jarri bizitzen. Han jaio ziren Migel eta Margaritaren seme-alaba Luis Migel eta Mertxe, nahiz eta gero Hernaniko Orkolaga kalera aldatu ziren 1967an, eta hantxe bizi urteen buruan.

Bertsolarien eta plazagizonen emazteen bizimodua aski zaila izan ohi da askotan, astegunetan senarra lanean delako, eta asteburu eta igande/jaietan bertsotara joan behar duelako. Askotan bakarrik aurkitzen du bere burua etxean, batez ere



haurrak zaindu eta hezteko garaian. Hala ere, ezkondu zenerako ba omen zekien Margaritak senarraren bizitza nolatsukoa zen, eta beti aurrera egin zuela aitortzen du, etxean zenean ondo laguntzen zion-eta.

Etxean zegoenean guraso gozoa eta atsegina zela aitortzen dute alargunak nahiz haren semeak eta alabak ere. Eguneko lanak amaitzean agudo etxera etorri eta zenbat aldiz neska-mutilak altzoan hartuta, ipuin kontari, edota «Saltzen saltzen, txakur txiki baten karamelua...» eta antzeko euskal kantu ezagunak kantatzen zituzten elkarrekin! Ume txikiak zaindu eta gozo entretenitzen guztiz iaioa zela aitortzen dute, eta ez da gutxi.



Leitzan, ezkontza egunean, 1958.05.31n



Alaba Mertxeren lehenengo jaunartzean

Bestalde, seme-alabei ez zien plazaz plaza bertsolari ibiltzeko gogo berezirik txertatu, bertsolari-eskola garaiak-eta ezagutzeko aitak baino aukera hobea izan zuten arren. Hori bai, bertsolarien ateraldi eta arrazoi zorrotzak, bertso zahar nahiz berriak ikasi eta kantatzen, edota euskal kantak abesteko abilidadea erantsi zien horratik!

Semeak 17 urte, eta neskak 12 urte inguru zituen Migel hil zenean, baina atseginez eta maitasunez gogoratzen dute aita zena.

ETXERAKO POZEAN

Kalakari edo kontalari ona zen. Txistek edo ipuinak kontatzen, edota haurtzaroko kontu zahar eta pasadizoak esaten hastean,



Migel, Iberdueroko lagunekin



Deban, 1974.01.06an, Zubeltzuren omenaldian

patxada eta grazia aparta zuen. Hitz-jario ona izaki, bazekien momentu bakoitzean kontakizunak ondo girotu eta janzten.

Herriz herri bertsotan zebilen garaian bertso kontu zahar asko ekarri ohi zuen Migelek etxera. Eguneko kontakizun arruntak eta pasadizo xelebreak, lagun baten ateraldi barregarriak.

Migelen umorea eta afizioak ere gogoan dituzte, noski. Besteak beste, argazkiak egiteko zaletasuna eta ohitura zuen, eta gero txukun-txukun ordenatu eta albumetan gordetzen zituen.

Mendizale porrokatua zen, eta mendira joan-etorriak egitea maite zuen. Soinez sendoa zelarik ere ibiltari ona zen. Negu

garaian, berriz, aldian behin ehizara joan nahi izaten zuen, askotan hutsaren peskizan.

Bestalde, etxeko lan txamarrak egin eta irakurtzea gustatzen zitzaion; baita tartean bertso zaharrak buruz ikasi eta kantatzea ere, bakarka nahiz etxekoekin batean. Txirrita, Xenpelar, Otaño eta abarren bertso zaharrak oso gogokoak zituen inoiz elkarrizketaren batean aitortu zidanez, eta sarri berritzen zituen.

Oro har, gizon patxadatsua eta gozoa zen Migel, eta etxezulo hutsa, horretarako aukerarik zuenean behintzat. Goizean goiz lanera joan, eta arratsaldean etxeko zereginetan murgiltzen zen, hurrekin jostatzen ez bazen argazki-albumak ordenatzen, edota han-hemen irakurtzen zituen egunkari edo aldizkarietako zatiak ebaki eta txukun ordenatu eta jasotzen. Alaba Mertxeri ere zaletasun berdina txertatu zion, eta ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula hark etxean duen altxorra. Orain aita zenaren zenbait karpeta ireki eta behatzen eta azterkatzen aritzen da askotan, urteak joanda gero.



Anaia Joxetxoren ezkontzan, emazte eta seme-alabekin

OMENALDIAK

Aski maitea zen Migel bere sorterri Lesakan. Eta maitasun/mirespen horren agiri-rietako bat 1976ko maiatzaren 23an egin zioten gorazarre edo omenaldi eder hura izan zen, ezbairik gabe. Biziki eskertu zuen berak ere sorterrian hala gogoratua izatea.

Goizean mezarekin hasi ziren eguneko jaiak. Eta gero, bertso saio bikaina, lagun arteko bazkaria eta abar, egun bete-betea eskaini zioten maiatz hartan herritar eta kanpoko. «Gaur igandea, berebiziko omenaldia eskeiñiko zaio bere jaioterri Lesakan Migel Arozamena bertsolari jatorrari. Argi ta garbi erakutsiko diote lesakarrak zein maitea eta gogozkoa duten



Lesakako omenaldian, 1976.05.23an

bere erritarra», idatzi zuen Basarrik *Goiz-Argi* astekarian goiz hartan, eta hiru bertso bikain eskaini zizkion albistea gozatzuz, hemen bakarra aipatuko badugu ere:

Askok itz egin naiko dute gaur,
Migel, zurekin bakarka;
pertsona onak ugari dira,
zu bezin onak banaka.
Beto zure bertsoak
itxi gabetan ataka;
batera besarkatzen zaituztet
bai zu ta bai Lesaka.

Hil eta handik hamabost egunera, Hondarribian omendu zuten berriro, 1977ko urtarrilaren 6an, Errege egunez. Urepeleko Xalbador handiarekin batera Arozamena zena omentzeko asmoz eta gogoz



Migel bere lagunekin Lesakan



Lesakan saria jasotzen

hantxe bildu ziren Koxme Lizaso, Agirre, Lazkano, Gorrotxategi, Mitxelena, Garmendia, Mattin, Xanpun, J. Lizaso, Patxi Etxeberria, Azpillaga eta beste norbait gehiago. Eta bertsolari guztiek aipatu eta goraldtu zituzten bi bertsolariak. Baina Koxme Lizasok jaialdiaren hasieran bere bihotzean zuen mindura kantatuz bota zuena gogoratuko dizut hemen:

Migel, mundutik joan zerala
iruditzen zait gezurra,
baiña egia biurtu zaigu
lendabiziko susmurra.
Izate onek gure biotzak
dizkigu erditik urra,
nik otoitzetan lagunduko'izut
al nezakien apurra:
Erdi negarrez egiten dizut
munduko azken agurra.



Lesakarrei eskerrak ematen

Bertsolariek bertsolariei izeneko jaialdian biak omendu zituzten berriro 1977ko otsailaren 26 hartan Hernanin, biak ere nonbaitetik begira izango ziren itxaropen betez. Bertso saio luzea eta handia izan zen hura, eta bertsolari eta bertsozale guztiek antolatua gainera. Imanol Lazkanok eta Iñaki Muruak egin zituzten aurkezpen lanak; eta haien esanetara hogeitahogeita bi bertsolarik beren sentimendurik ederrrenak kantatu.

Saio osoan zehar behin eta berriz gogoratu zituzten hilabete gutxi lehenago gure artetik joan ziren bi bertsolarien izenak. «Omenaldi hau ospatzen dogu haundi, txiki, gazte, zarrak/Horretarako eginak dira zazpi probintzen biltzarrak/Xalba-



Lesakan, mezatan

dor eta Arozamena egunsentiko izarrak... Gora Xalbador ta Arozamena! Gora gure anai naparrak!», kantatu zuen Balendin Enbeita. Eta beste batek: «Lengo urteak eman dizkigu naigabe triste illunak/Xalbador eta Arozamena baiziran mundutik junak». Patxi Etxeberria oriotarrak, berriz, bere lagun Migel goralduz kantatu zuen bereziki, gai emailleak halaxe eskatuta: «Maiz alkartutzen giñan mendiz eta herriz/gozatu asmoz biok bertsoaren neurritz ta entzulea jarri txaloz eta irriz/Gehiago egiterik ez daukagu berriz».

USTEKABEKO HERIOTZA

Erruz maite zuen Migelek Gabon-Eguberri jaietako giroa. Eta ez zen loteriaren zain zorutzen. Aski zuen lantokian lankide guztiei urteoro eman ohi zieten otartxoak. Eta behin hura hartzen zuenean, txoria baino alaiago heltzen zen etxera, emaztea eta seme-alabei nondik poza emango.

1976ko abenduaren 23ko goiz hartan ere, beti bezalaxe, zazpiak aldean joan zen lanera, haurtzarotik ezagutu zuen etxeko ospakizun gozoaren ametsa buruan zuela. Gabon eguna ez zen egun arrunta haren-



Lesakako herriaren saria hartuta

tzat inola ere, nahiz eta betiko lanak egin beharko zituen eguerdira arte behintzat, arratsaldez jai hartuko baitzuten.

Baina... goizean goiz lantalde osoarekin Azpeiti aldera joan eta bete-betean lanean ari zirela, goizeko hamaikak aldean, ustekabean eta bat-batean, zapla!, etorri zitzaion herio gaiztoa gainera. Eta familia baten ametsak eta asmoak erdi-erditik eten zituen, batere gupidarik gabe. Azukrearekin-eta bere burua pittin bat zaintzen ibiltzen zela bai, baina hura zen ustekabea eta hura zen kolpe gaiztoa!

Irratiz entzun genuen lehenengo albistea, baina sinestu ezin inola ere. 1976ko urteak madarikazio gogorra ekarri zuen Euskal Herriko bertsolarien eta bertsozaleen baratzte handira. Sinesteak ere lanak zituen, zinez. Nork pentsatu behar zuen bere lagun Xalbador hil eta handik hilabete t'erdira hil behar zuela, ozta-ozta. Itxuraz osasunez gainezka, eta Urepelekoaren omenaldia prestatzen buru-belarri ari zela gainera!



Martzelino Bergara pilotariarekin

Artean 46 urte zituen, eta erretiro kontua urruti samar zuen, baina mila amets egiten zuen Migelek lana uzteko eguna zetorkionerako: familia, mendia, ehiza, irakurketa, argazkiak, nagusiei baimena eskatu beharrik gabe bertso tara noranahi joateko aukera...

Inork ez zuen halakorik uste, ez berak eta ez haren familiak. Baina azkenengo laneguna halaxe etorri zitzaion, eta ez ehiza eta ez bertso gelditu zen Hernaniko nafarra. Bere lagun maite Andres Narbarte *Xalto* hil zenean berak idatzi zuenaz gogoratu ginen bat-batean:

Batek ez daki mundu onetan
zenbat ordu dun berekin
al den artian saiatu biar
borondate onenarekin
Zuk ere etzendun oker aundirik,
ta lasai egon orrekin
Gu're ez gera luzarorako,
ta laister gera elkarrekin.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Arozamenaren alargun Margaritari, alaba Mertzleri eta anaia Manolori, bereziki

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2797-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2799-7

L.G.: VI-445/08

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco